Sin./Fdo.: MARÍA TERESA LAESPADA MARTINEZ - 2025-02-28
ENPLEGUA, GIZARTE KOHESIOA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE EMPLEO, COHESIÓN SOCIAL E IGUALDAD

Akordioa/Acuerdo: DF 00015/2025 - Data/Fecha: 2025-03-06
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2025-03-06
GZko 20.gaia onartuta - Aprobado, asunto 20) de OD

**BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN FORU DEKRETUA,** kontratazioa bultzatzeko dirulaguntzen oinarriak eta deialdia onartzen dituena (Kontrata programa 2025).

I

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak bultzatzen duen eredu ekonomikoak enplegu egonkor eta kalitatekoaren sorrera sustatzen du, genero-berdintasuna bultzatu, aberastasuna banatu eta onurak berrinbertitu; areago, lurraldearekin konpromisoa hartuta dauka, eta aukerak ematen dizkie beren inguruabar bereziengatik laneratzeko zailtasun handiagoak dituztenei (bereziki, gizarte-zaurgarritasuneko egoeran daudenei: luzaroko langabeei, 50 urtetik beherakoei, eta desgaitasuna dutenei). Eredu ekonomiko hori, beraz, enplegu-politiketarako funtsezko tresna da, eta gizarte bidezkoago eta solidarioago bat sortzen laguntzen du.

Bizkaiko Foru Aldundiak enplegua gizarte-inklusiorako eta -kohesiorako elementu bihurtzeko hartutako konpromisoetako bat da. Asmo hori, guztiz bat dator Garapen Iraunkorraren Agendarekin (2030) eta Europa Estrategiarekin (2020).

Ildo horretan, erronketako bat langabezia prebenitzea eta murriztea da, eta, horretarako, jarduketak langabezia handiena duten kolektiboetan ardaztea, eta, besteak beste,

**DECRETO FORAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA,** por el que se aprueban las bases y convocatoria de subvenciones para el apoyo a la contratación, Programa Kontrata 2025.

I

El Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad apuesta por un modelo económico que favorece la creación de empleo estable y de calidad, que promueve la igualdad de género, que redistribuye la riqueza, que reinvierte los beneficios, que se compromete con el territorio, que da oportunidades a quienes por sus especiales circunstancias encuentran mayores dificultades de inserción laboral, en especial las personas en situación de vulnerabilidad social: desempleadas de larga duración, personas menores de 50 años, y las personas con discapacidad, que constituye un elemento clave de las políticas de empleo y que contribuye a crear una sociedad más justa y solidaria.

Uno de los compromisos de la Diputación Foral de Bizkaia es hacer del empleo un elemento para la inclusión y cohesión social. Una aspiración en total consonancia tanto con la Agenda de Desarrollo Sostenible 2030 como con la Estrategia Europa 2020.

En este sentido, uno de los retos tiene por objeto prevenir y reducir el desempleo, focalizando las actuaciones en los colectivos con mayor desempleo, fomentando, entre otras actuaciones,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8CA9-S14T-P57J-IY1Z
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

enplegua lortzea eta mantentzea sustatzea, kontratazioko pizgarrien bidez.

el acceso y el mantenimiento del empleo mediante estímulos a la contratación.

Egungo egoera ekonomikoa ikusita, komeni da enplegua sustatu eta bultzatzea langabeen kontratazioa eta enpleguaren suspertzera zuzendutako neurri ekonomikoen bidez. Aurreko urteetako pizgarrien esperientzia jasoz, langabetuengan jarri behar da arreta, haien kalteberatasun-egoera areagotzea saihesteko, eta egoera hori kronifikatu aurretik konpontzen saiatzeko.

La actual coyuntura económica, recomienda el fomento e impulso del empleo, mediante medidas económicas dirigidas a favorecer la contratación de personas desempleadas y la reactivación del empleo. Recogiendo la experiencia de los incentivos de años anteriores, se focaliza en las personas desempleadas, para evitar la intensificación de su situación de vulnerabilidad y para tratar de resolver su situación antes de que pasen a una de cronificación.

Langabeak kontratatzen eta enplegua suspertzen lagunduko duten neurriak ezarri nahi dira.

Se pretende implementar medidas dirigidas a favorecer la contratación de personas desempleadas y a la reactivación del empleo.

## II

## II

Laguntzak, alde batetik, langabetuen kontratazio mugagabera bideratuta daude, eta, bestetik, honako programa hauetan parte hartu duten langabetuen esperientzia profesionala babestera: Barakaldoko DEMA Enpresa Garapenarekin lankidetzan kudeatutako Laborlan V (2024) eta Laborlan VI (2025) enplegu-prestakuntzako programa mistoetan edo Gazte on - Eraikuntzaren sektoreko prestakuntza teknikoaren programan, edo prestakuntza bidezko sustraitze-programan, zeina Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak diruz lagundu eta Sartu Taldea Gizarteratzeko Elkartearekin lankidetzan kudeatzen baitu, migratzaileen enpleguan laguntzeko proiektu esperimentala finantzatzeko, prestakuntza bidezko sustraitzea ahalbidetzeko.

Las ayudas están dirigidas, por una parte, a la contratación indefinida de personas desempleadas, y por otra, a apoyar la experiencia profesional tanto de personas desempleadas que hayan participado en programas mixtos de empleo formación Laborlan V (2024) y VI (2025) gestionados en colaboración con DEMA Enpresa Garapena de Barakaldo, o en el Programa Gazte on - Formación técnica en el sector de la construcción, así como de las personas desempleadas que hayan participado en el Programa de Arraigo por Formación subvencionado por el Servicio de Empleo del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia y gestionado en colaboración con la Asociación para la Reinserción Social, Sartu Taldea, para la financiación del proyecto experimental de acompañamiento al empleo de personas migrantes que permita el arraigo por formación.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8CA9-S14T-P57J-IY1Z
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Kasu bietan, laguntzak lehiarik gabeko prozeduraren bidez emango dira.

III

Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio foru-dekretu honen xede den gaiaren gaineko eskumena, hala ezartzen baitu Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.2. artikuluak. Zehazki, artikulu horrek xedatzen du Foru Aldundiari dagozkiola araubide erkideko aldundien eskumeneko gaiak, eta, ildo horretan, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36.d) artikuluak ezartzen du probintziako diputazioen berezko eskumena dela «Probintziako lurraldearen garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko eta plangintza egiteko lankidetza ematea, arlo horretan beste herri-administrazioek dituzten eskumenekin bat etorriz. ».

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren egitura organikoa onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 6ko 60/2024 Foru Dekretuaren arabera, sail honen helburua da Bizkaiko gizartean berdintasuna, elkartasuna, gizarte-kohesioa eta enplegua bultzatzeko politika publikoak sortu eta sustatzea, eta, horretarako, zerbitzuak ematen dizkie egoera pertsonalaren, sozialaren edo familia-egoeraren ondorioz bizimodu duin eta betea garatzeko zailtasunak dituzten pertsonei. Zeregin horretan, arreta berezia jartzen du tratu txarren biktima diren emakumeen kolektiboan eta gizarte-bazterketako egoeran edo egoera horretan geratzeko arriskuan dauden pertsonen kolektiboan. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak, orobat,

Las ayudas se otorgarán, en ambos casos, por el procedimiento de libre concurrencia.

III

La competencia sobre la materia objeto de este decreto foral corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia, de conformidad con el artículo 17.2º de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia. Éste último dispone que corresponde a la Diputación Foral aquellos asuntos que son competencia de las Diputaciones de régimen común y, en este sentido, el artículo 36 d) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local establece que es competencia propia de las Diputaciones Provinciales «la cooperación en el fomento del desarrollo económico y social y en la planificación en el territorio provincial, de acuerdo con las competencias de las demás Administraciones Públicas en este ámbito».

Conforme al Decreto Foral 60/2024, de 6 de junio, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, este departamento tiene como misión la generación e impulso de políticas públicas favorecedoras de la igualdad, la solidaridad, la cohesión social y el empleo en la sociedad de Bizkaia, mediante la prestación de servicios a aquellos ciudadanos y ciudadanas que, a causa de su situación personal, social o familiar, tengan dificultades para desarrollar una vida digna y plena, centrando el foco de su atención en el colectivo de mujeres víctimas de maltrato, en el de las personas en riesgo o situación de exclusión social, el impulso y la promoción del empleo y las competencias laborales de la ciudadanía, así como en la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8CA9-S14T-P57J-IY1Z
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

enplegua eta herritarren lan-gaitasunak sustatzen ditu, eta giza garapen iraunkorra bultzatzen, generoaren, dibertsitatearen kudeaketaren eta lankidetza zein garapenaren arloko politiken bidez.

promoción del desarrollo humano sostenible, diseñando políticas de género, de gestión de la diversidad y de cooperación y desarrollo.

IV

Dirulaguntzen programa hau Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren 2024-2027 aldirako Dirulaguntzen bigarren Plan Estrategikoan sartuta dago.

IV

Este programa de subvenciones está incluido en el segundo Plan Estratégico de Subvenciones del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad para el período 2024-2027.

V

Dekretuaren prestaketan genero-ikuspegia txertatu da, honako hauek betez: 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen Testu Bategina onartzen duena (aurrerantzean 1/2023 Legegintzako Dekretua); 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa (aurrerantzean 4/2018 Foru Araua); eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 112/2024 Foru Dekretua, azaroaren 14koa, zeinaren bidez arautzen baita Bizkaiko Foru Aldundian generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa.

Ildo horretan, foru-dekretu honen izapidetzean generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena gehitu da.

V

En la elaboración del decreto se ha incorporado la perspectiva de género, en cumplimiento del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres (en adelante Decreto Legislativo 1/2023), de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres (en adelante Norma Foral 4/2018) y del Decreto Foral 112/2024, de 14 de noviembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se regula la evaluación previa del impacto en función del género en la Diputación Foral de Bizkaia.

En este sentido, en la tramitación de este decreto foral se incorpora el Informe de Evaluación Previa del Impacto en función del Género.

VI

Dekretu hau egiteko, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan xedatutakoa.

VI

El decreto se ha elaborado teniendo en cuenta los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia que regula el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8CA9-S14T-P57J-IY1Z
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

VII

Foru-dekretu honek betetzen ditu Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean (aurrerantzean 39/2015 Legea) eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan ezarritako erregulazio onaren printzipioak. Dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da (aurrerantzean 87/2021 Foru Dekretua), eta haren xedapenak bete dira berau prestatu eta izapidetzeko orduan. Eta, ildo horretan, txosten hauek egin dira:

1. Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazio-txostena.

2. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren txosten juridikoa.

3. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazio-txostena.

4. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.

5. Legezkotasunari buruzko txostena.

6. Klima-inpaktuaren ebaluazio-txostena.

Halaber, aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea eta entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapidea egin dira, 87/2021 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, eta izapide horren emaitzak dagozkien memorietan jaso dira.

VIII

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1 artikuluak (aurrerantzean 5/2005 Foru Araua) ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru

VII

El decreto foral responde a los principios de buena regulación previstos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas (en adelante Ley 39/2015) y recogidos en el artículo 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia (en adelante Decreto Foral 87/2021), cuyas disposiciones se han observado en su elaboración y tramitación, habiéndose emitido los siguientes informes:

1. Informe de evaluación preliminar del impacto de género.

2. Informe jurídico del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad.

3. Informe de Evaluación Previa del Impacto en función del Género.

4. Informe de control económico.

5. Informe de legalidad.

6. Informe de evaluación de impacto climático.

Asimismo, se ha sometido al trámite de consulta pública previa y al de audiencia e información pública conforme a lo previsto en el Decreto Foral 87/2021, cuyos resultados han sido incorporados a las correspondientes memorias.

VIII

El artículo 16.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral (en adelante Norma Foral 5/2005) habilita a la Diputación Foral de Bizkaia

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8CA9-S14T-P57J-IY1Z
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Aldundiari foru-dekretu bidez dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzeko, zerbitzu juridikoen txostena jaso ondoren; eta 5/2005 Foru Araua garatzen duen Dirulaguntzen Erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikuluak (aurrerantzean 34/2010 Foru Dekretua) oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko aukera ezartzen du, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak du horiek onartzeko eskumena.

para aprobar las bases reguladoras de la concesión de subvenciones mediante decreto foral, previo informe de los servicios jurídicos; y el artículo 41.1 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005 (en adelante Decreto Foral 34/2010), establece la posibilidad de la tramitación conjunta de las bases reguladoras y la convocatoria, residiendo en el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia la competencia para su aprobación.

Halaber, otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzkoak, 39 k) artikuluan xedatzen duenez, foru diputatuei dagokie Bizkaiko Foru Aldundiari proposatzea, onar ditzan, bere sailaren berezko gaiei buruzko foru dekretuaren proiektuak.

Asimismo, el artículo 39 k) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia determina que compete a los diputados forales y a las diputadas forales proponer a la Diputación Foral de Bizkaia, para su aprobación, los proyectos de decreto foral en las materias propias de su departamento.

Hori dela bide, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru-diputatuaren ekimenez eta Bizkaiko Foru Aldundiak aztertu ondoren,

En su virtud, a iniciativa de la diputada foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia,

XEDATZEN DUT

DISPONGO

**Artikulu bakarra.** *Oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea.*

2025eko ekitaldian kontratazioa bultzatzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia (Kontrata programa) onartzen dira. Hona hemen testua:

**Artículo Único.** *Aprobación de bases reguladoras y convocatoria.*

Se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de concesión de subvenciones para el apoyo a la contratación, Programa Kontrata, del ejercicio 2025, cuyo texto se inserta a continuación:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8CA9-S14T-P57J-IY1Z
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

AZKEN XEDAPENAK

Azken xedapenetako lehena. *Arauen garapenerako gaikuntza.*

1. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru-dekretu honetan xedatutakoa garatu, betearazi eta aplikatzeko beharrezkotzat jotzen dituen xedapen guztiak eman ditzan. Gaikuntza horren barruan sartzen da dagozkion dirulaguntzak ematea.

2. Era berean, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatuari ahalmena ematen zaio eskaerak aurkezteko epea luzatzeko edo ixteko, baldin eta 39/2015 Legearen 32.4 artikuluan ezarritako kasua gertatzen bada edo aurrekontu-zuzkidura agortu edo handitzen bada.

3. Oro bat, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatuari ahalmena ematen zaio dirulaguntzetarako deialdi berriak irekitzeko, baldin eta aurrekontuetako baliabideak agortzen ez badira.

Azken xedapenetako bigarrena. *Indarraldia*.

Foru-dekretu hau 2025. eta 2026. urteetan egongo da indarrean.

Azken xedapenetako hirugarrena. *Indarrean jartzea*.

Foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

DISPOSICIONES FINALES

Disposición final primera. *Habilitación para el desarrollo normativo.*

1. Se faculta a la diputada foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad a dictar cuantas disposiciones considere necesarias para el desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en este decreto foral. Esta habilitación incluye la concesión de las subvenciones pertinentes.

2. Asimismo, se faculta a la diputada foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad para acordar la ampliación o cierre del plazo de presentación de solicitudes, en caso de que se dé el supuesto previsto en el artículo 32.4 de la Ley 39/2015 o que se agote o incremente la dotación presupuestaria.

3. Asimismo, se faculta a la diputada foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad para acordar la apertura de nuevas convocatorias de subvenciones para el supuesto de no agotarse las disponibilidades presupuestarias.

Disposición final segunda. *Vigencia*.

Este decreto foral tendrá vigencia durante los años 2025 y 2026.

Disposición Final Tercera. *Entrada en vigor*.

Este decreto foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatua / La diputada foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad. MARIA TERESA LAESPADA MARTÍNEZ

Ahaldun Nagusia / La Diputada General. ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8CA9-S14T-P57J-IY1Z
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Kontratazioa bultzatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia, Kontrata programa 2025.

## AURKIBIDEA


I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. oinarria.— *Dirulaguntzaren helburua.*

2. oinarria.— *Definizioak.*

I. KAPITULUA

1. arloa: Kontratazio mugagaberako pizgarriak.

3. oinarria. — *Erakunde onuradunak.*

4. oinarria. — *Dirulaguntza jaso dezakeen egitatea.*

5. oinarria. — *Dirulaguntzen zenbatekoa.*

6. oinarria. — *Dirulaguntza ordaintzea eta justifikatzea.*

7. oinarria. — *Baja.*

II. KAPITULUA

2. Arloa: Esperientzia profesionala

8. oinarria. — *Erakunde onuradunak.*

9. oinarria. — *Dirulaguntza jaso dezakeen egitatea.*

10. oinarria. — *Dirulaguntzen zenbatekoa.*

11. oinarria. — *Dirulaguntza ordaintzea eta justifikatzea.*

12. oinarria. — *Baja.*

III. KAPITULUA

Aurrekontu-kredituak

13. oinarria. — *Aurrekontuko zuzkidura.*


Bases reguladoras y convocatoria de subvenciones para el apoyo a la contratación, Programa Kontrata 2025.

## ÍNDICE


TÍTULO I

Disposiciones generales

Base 1. — *Objetivo de la subvención.*

Base 2. — *Definiciones.*

CAPÍTULO I

Área 1: Incentivos a la contratación indefinida

Base 3. — *Entidades beneficiarias.*

Base 4. — *Hecho subvencionable.*

Base 5. — *Cuantía de las ayudas.*

Base 6. — *Pago y justificación de la subvención.*

Base 7. — *Baja.*

CAPÍTULO II

Área 2: Experiencia profesional

Base 8. — *Entidades beneficiarias.*

Base 9. — *Hecho subvencionable.*

Base 10. — *Cuantía de las ayudas.*

Base 11. — *Pago y justificación de la subvención.*

Base 12. — *Baja.*

CAPÍTULO III

Créditos presupuestarios

Base 13. — *Dotación presupuestaria.*


Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8CA9-S14T-P57J-IY1Z
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

## II. TITULUA

### Prozedura

14. oinarria. — *Eskabideak aurkezteko modua, tokia eta epea eta ESEPEn inskribatzea.*

15. oinarria. — *Eskabidea egiteko behar den dokumentazioa eta elkarreragingarritasuna.*

16. oinarria. — *Eskabidea zuzentzea edo hobetzea.*

17. oinarria. — *Dirulaguntza emateko prozedura.*

18. oinarria. — *Ebazpena.*

19. oinarria. — *Errekurtsoak.*

20. oinarria. — *Jakinarazpen elektronikoa.*

21. oinarria. — *Erakunde onuradunaren betebeharrak.*

22. oinarria. — *Subrogazioa.*

23. oinarria. — *Dirulaguntzen bateragarritasuna.*

24. oinarria. — *Dirulaguntzaren aldaketa.*

25. oinarria. — *Dirulaguntza gutxitzea.*

26. oinarria. — *Baldintzak ez betetzea.*

27. oinarria. — *Aldaketen, gutxitzeen eta ez-betetzeen prozedura.*

28. oinarria. — *Itzuli beharreko kredituak.*

29. oinarria. — *Dirulaguntza erakunde onuradunaren ekimenez itzultzea.*

30. oinarria. — *Emandako dirulaguntzen publizitatea.*

31. oinarria. — *Onuradunak eman zaion dirulaguntzaren publizitatea egitea.*

32. oinarria. — *Araubide juridikoa.*

33. oinarria. — *Organo eskudunak.*

34. oinarria. — *Programaren jarraipena. Ikuskapena eta kontrola.*

35. oinarria. — *Dirulaguntzaren erakunde onuradunen arduradunen datu pertsonalen tratamendua.*

## TÍTULO II

### Procedimiento

Base 14. — *Forma, lugar y plazo de presentación de las solicitudes e inscripción en el REPPE.*

Base 15. — *Documentación necesaria para la solicitud e interoperabilidad.*

Base 16. — *Subsanación o mejora de la solicitud.*

Base 17. — *Procedimiento de concesión.*

Base 18. — *Resolución.*

Base 19. — *Recursos.*

Base 20. — *Notificación electrónica.*

Base 21. — *Obligaciones de la entidad beneficiaria.*

Base 22. — *Subrogación.*

Base 23. — *Compatibilidad de subvenciones.*

Base 24. — *Modificación de la subvención.*

Base 25. — *Minoración de la subvención.*

Base 26. — *Incumplimiento.*

Base 27. — *Procedimiento de modificaciones, minoraciones e incumplimientos.*

Base 28. — *Créditos a reintegrar.*

Base 29. — *Devolución de la subvención a iniciativa de la entidad beneficiaria.*

Base 30. — *Publicidad de las subvenciones concedidas.*

Base 31.—*Difusión de la subvención concedida por la persona beneficiaria.*

Base 32. — *Régimen jurídico.*

Base 33. — *Órganos competentes.*

Base 34. — *Seguimiento del programa. Inspección y control.*

Base 35. — *Tratamiento de datos personales de las personas responsables de las entidades beneficiarias de la subvención.*

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8CA9-S14T-P57J-IY1Z
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

36. oinarria. — *Diruz lagundutako jardueran parte hartzen duten pertsonen datu pertsonalen tratamendua.*

37. oinarria. — *Arau-hausteak eta zehapenak.*

## I. TITULUA

### Xedapen orokorrak

1. oinarria. *Dirulaguntzaren helburua.*

Dirulaguntzen programa honen bidez, kontratazioa bultzatu nahi da, bi jardun-arloren bidez:

I. arloa. Kontratazio mugagaberako pizgarriak.

Haren helburua da Bizkaiko enpresek 4. oinarrian azaldutako pertsonak kontratu mugagabeen bidez kontratatzen laguntzea.

II. arloa. Esperientzia profesionala.

Programa hauetakoren batean parte hartu duten pertsonen enplegagarritasuna bultzatzea du helburu:

a) Laborlan V (2024) eta Laborlan VI (2025) prestakuntza-enpleguko programa mistoak —aurrerantzean Laborlan V (2024) eta Laborlan VI (2025)—, Barakaldoko DEMA Enpresa Garapenarekin lankidetzan kudeatuak, edo Gazte on -Eraikuntzaren sektoreko prestakuntza teknikoaren programa.

b) Prestakuntza bidezko sustraitze-programa, Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Enplegua Sustatzeko Zerbitzuak diruz lagundua eta Sartu Taldea Gizarteratzeko Elkartearekin lankidetzan kudeatua, migratzaileen enpleguan laguntzeko proiektu esperimentala finantzatzeko, prestakuntza bidez sustraitzea ahalbidetzeko (aurrerantzean, prestakuntza bidezko sustraitzea).

Base 36. — *Tratamiento de datos personales de las personas que participan en la actividad subvencionada.*

Base 37. — *Infracciones y sanciones.*

## TÍTULO I

### Disposiciones generales

Base 1. *Objetivo de la subvención.*

Mediante este programa de subvenciones se pretende apoyar la contratación a través de dos áreas de actuación:

Área I. Incentivos a la contratación indefinida.

Su objeto es apoyar la contratación mediante la contratación indefinida de las personas descritas en la base 4, por las empresas de Bizkaia.

Área II. Experiencia profesional.

Su objeto es apoyar la empleabilidad de las personas que hayan participado en alguno de los siguientes programas:

a) Programas mixtos de empleo formación, Laborlan V (2024) y VI (2025), gestionados en colaboración con DEMA Enpresa Garapena de Barakaldo (en adelante Laborlan 2024 y Laborlan 2025) o en el Programa Gazte on - Formación técnica en el sector de la construcción.

b) Programa de Arraigo por Formación subvencionado por el Servicio de Empleo del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia y gestionado en colaboración con la Asociación para la Reinserción Social, Sartu Taldea, para la financiación del proyecto experimental de acompañamiento al empleo de personas migrantes

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8CA9-S14T-P57J-IY1Z
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

que permita el arraigo por formación. (en adelante Arraigo por Formación).

2. oinarria. *Definizioak.*

Base 2. *Definiciones.*

Oinarri eta deialdi hauen ondorioetarako, honela ulertuko dira honako kontzeptu hauek:

A los efectos de estas bases y convocatoria se entenderá por:

1. 50 urtetik beherako pertsonak: kontratazioaren hasieran 50 urte beteak ez dituztenak.

1. Personas menores de 50 años: aquellas que no hayan cumplido los 50 años al inicio de la contratación.

2. Iraupen luzeko langabeak: kontratazioa hasi aurreko 13 hilabeteetan hilabete baino gehiago lan egin ez dutela egiaztatzen dutenak.

2. Personas desempleadas de larga duración: aquellas que acrediten no haber trabajado más de un mes en un período de 13 meses anteriores al inicio de la contratación.

3. Desgaitasuna duten pertsonak: % 33ko edo hortik gorako desgaitasun-ehuneko balorazioa egiaztatzen dutenak.

3. Personas con discapacidad: aquellas que acrediten una valoración de la situación de discapacidad en un porcentaje igual o superior al 33 %.

4. Bazterkeriako arrisku-egoeran dauden pertsonak:

4. Personas en riesgo de exclusión:

a) Bizkaiaren Kohesiorako foru-zerbitzu sozialei dagozkien zerbitzu, zentro eta programa publikoetako edozeinetan sartuta dauden pertsonak (zerbitzuok ekainaren 6ko 60/2024 Foru Dekretuaren 15.1.a) artikuluan zehaztutakoak dira).

a) Personas que se hallan incorporadas a cualesquiera de los servicios, centros y programas de carácter público dependientes de los servicios sociales forales para la Cohesión de Bizkaia que se definen en el artículo 15.1.a) del Decreto Foral 60/2024, de 6 de junio.

b) Bizkaiko Lurralde Historikoko udalen baten oinarrizko gizarte-zerbitzuen iritziz bazterkeriako arrisku-egoeran dauden pertsonak, betiere ebaluazio eta diagnostikorako legez onetsitako ohiko tresna teknikoak erabilita hala baloratu bada eta oinarrizko gizarte-zerbitzu eskudunak txosten bidez egoera hori egiaztatu badu.

b) Personas que, a juicio de los servicios sociales de base de algún ayuntamiento del Territorio Histórico de Bizkaia, se considere que están en situación de riesgo de exclusión utilizando los instrumentos técnicos comunes de valoración y diagnóstico legalmente aprobados, acreditando tal circunstancia por informe del servicio social de base competente.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8CA9-S14T-P57J-IY1Z
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

c) Guraso bakarreko familiako aita edo ama, baldin eta egiaztatzen badu ordaindutako jarduerarik egiten ez duen ondorengo bat edo batzuk dituela bere kargupean.

c) El padre o la madre de una familia monoparental/monomarental, que acredite tener a su cargo a uno o varios descendientes que no desempeñen actividad retribuida.

d) Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legean ezarritako prestazio ekonomikoen edo martxoaren 22ko 60/2011 Foru Dekretuak (abenduaren 13ko 207/2011 Foru Dekretuak emandako idazkeran) araututako gizarteratzeko laguntza berezien onuradun izan diren pertsonak eta haien bizikidetza-unitateko kideak, edo bizitzeko gutxieneko diru-sarrera ezartzen duen abenduaren 20ko 19/2021 Legean araututako bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren onuradunak.

d) Personas que hayan obtenido la condición de beneficiarias de las prestaciones económicas establecidas en la Ley 14/2022, de 22 de diciembre, del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión o de las ayudas especiales para la Inclusión social reguladas por el Decreto Foral 60/2011, de 22 de marzo, en redacción dada por Decreto Foral 207/2011, de 13 de diciembre, así como los miembros de su unidad de convivencia o beneficiarias del ingreso mínimo vital regulado en la Ley 19/2021, de 20 de diciembre, por la que se establece el ingreso mínimo vital.

e) Toxikomano izandako pertsonak (alkoholiko eta drogazale izandakoak); foru-dekretu honetan ezarritako laguntzen ondoreetarako, halakotzat hartuko dira talde terapeutiko egokiaren ustetan, desintoxikazio-fasea eta mendekotasun-fasea gainditu ondoren eta etengabeko tratamenduan 6 hilabete emandakoan lanaren bidez gizarteratzeko programa batean egon behar diren pertsonak.

e) Personas extoxicómanas (exalcohólicas y exdrogadictas), considerando como tales a los efectos de las ayudas previstas en este decreto foral, a aquellas que habiendo superado, a juicio del equipo terapéutico correspondiente, las fases de desintoxicación y deshabituación y llevando más de 6 meses de tratamiento continuado, se considere de interés su adscripción a un programa de reinserción social a través del trabajo.

f) Genero-indarkeriaren biktimak; Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera egiaztatua, edo Bizkaiko Foru Aldundiko Emakumea babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuak esku-hartu duela egiaztatzen duen agiriaren bidez.

f) Personas víctimas de violencia de género, acreditado según lo dispuesto en la Ley Orgánica 1/2004, de 28 de diciembre, de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género o mediante documento acreditativo de la intervención por parte del Servicio de Mujer e Intervención Familiar de la Diputación Foral de Bizkaia.

g) Preso ohiak, integrazio-prozesuetan dauden errefuxiatuak eta etxerik gabeko bizimodua uzteko prozesuak gainditu dituzten pertsonak.

g) Personas ex-reclusas, personas refugiadas en procesos de integración y personas que hayan superado procesos de sinhogarismo.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8CA9-S14T-P57J-IY1Z
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

h). Sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima gisa detektatutako emakumeak.

h) Mujeres detectadas como víctimas de trata con fines de explotación sexual.

5. Bigarren mailara arteko ahaidetasun-harremana, maila hori barne.

5. Relación de parentesco hasta el segundo grado inclusive.

a) Odol-ahaidetasunagatik: aita, ama, seme-alabak, aitona-amonak, neba-arrebak eta bilobak.

a) Por consanguinidad: padre, madre, hijos/as, abuelos/as, hermanos/as y nietos/as.

b) Ezkontza-ahaidetasunagatik: ezkontidea edo izatezko bikotekidea, suhi-errainak, aita-amaginarrebak, ezkontidearen aitona-amonak eta koinatu-koinatak.

b) Por afinidad: cónyuge o pareja de hecho, hijos/as políticos/as, suegros/as, abuelos/as del cónyuge y cuñados/as.

6. REGCON: Euskal Autonomia Erkidegoko Hitzarmenen, Lan Akordio Kolektiboen eta Berdintasun Planen Erregistroa eta Gordailua.

6. REGCON: Registro y depósito de Convenios, Acuerdos Colectivos de Trabajo y Planes de Igualdad, del País Vasco.

## I. KAPITULUA

### 1. arloa - Kontratazio mugagaberako pizgarriak

3. oinarria. *Erakunde onuradunak.*

1. Honako hauek izan daitezke dirulaguntzen onuradun: Bizkaiko enpresak (haien forma juridikoa gorabehera), enpresaburu indibidual eta profesionalak, ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak, bai eta Bizkaiko Lurralde Historikoko elkarte, fundazio eta irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuk ere.

2. Erakunde onuradunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Sozietatearen egoitza eta zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea. Eta, era berean, lantokia ere lurralde horretan izatea.

b) Gehienez ere 250 langile edukitzea plantillan.

## CAPÍTULO I

### Área 1 - Incentivos a la contratación indefinida

Base 3. *Entidades beneficiarias.*

1. Podrán ser beneficiarias de las subvenciones las empresas de Bizkaia, cualquiera que sea su forma jurídica, los empresarios y empresarias individuales y profesionales, las comunidades de bienes y sociedades civiles, así como las asociaciones, fundaciones y otras entidades sin ánimo de lucro, del Territorio Histórico de Bizkaia.

2. Las entidades beneficiarias deberán cumplir, las siguientes condiciones:

a) Tener su domicilio social y fiscal, así como su centro de trabajo, en el Territorio Histórico de Bizkaia.

b) Tener una plantilla de hasta 250 personas.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8CA9-S14T-P57J-IY1Z
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

c) Aurreko betekizun horiek betetzen ez dituzten enpresek ezin dute % 25 baino gehiagoko partaidetza izan erakunde onuradunean, zuzenean edo zeharka.

c) No hallarse participadas directa o indirectamente en más de un 25% por empresas que no reúnan los requisitos anteriores.

d) Enpresaburu indibidualek edo profesionalek, ondasun-erkidegoetako erkideek eta sozietate zibiletako kideek ohiko egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan dutela egiaztatu behar dute.

d) Acreditar la residencia habitual en el Territorio Histórico de Bizkaia en el caso de empresarios o empresarias individuales o profesionales, y de las personas socias o comuneras en el caso de sociedades civiles y comunidades de bienes.

e) Indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

e) Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias o frente a la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes.

3. Onuradunak izateko, entitateek ezin dute egon 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan zein 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan jasotako inongo debekuren mendean.

3. Para ser beneficiarias, las entidades no pueden verse afectadas por ninguna de las prohibiciones del artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, así como del artículo 42 de la Norma Foral 4/2018.

4. Pertsona fisiko eta juridiko hauek ezin izango dute, inola ere, inolako laguntza edo dirulaguntzarik jaso:

4. En ningún caso podrán concurrir ni resultar beneficiarias de ningún tipo de ayudas o subvenciones las personas físicas y jurídicas:

a) Berdintasunerako eskubidea eta sexuan oinarritutako bereizkeriarik ez izateko eskubidea urratzeagatik zehapen irmoa dutenek, administrazio-, lan- edo zigor-bidean.

a) Que hayan sido sancionadas en firme en vía administrativa, laboral o penal por vulneración del derecho a la igualdad y a la no discriminación por razón de sexo.

b) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioaren aurkakoak diren xede edo helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituztenek.

b) Cuyos fines u objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización o estatutos sean contrarios al principio de igualdad de mujeres y hombres.

c) Ez betetzea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan (aurrerantzean 3/2007 Lege Organikoa) ezarritako betebeharrak betetzen ez dituztenek.

c) Que incumplan las obligaciones establecidas en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres (en adelante Ley Orgánica 3/2007).

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8CA9-S14T-P57J-IY1Z
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Halaber, ezin izango dira diruz lagundu sexuagatiko bazterkeria eragiten duten jarduerak edo ekintzak.

Asimismo, no se podrán subvencionar las actividades o acciones que discriminan por razón de sexo.

5. Erakunde onuradunaren izaeratik kanpo geratzen dira toki-administrazioaren, foru-administrazioaren, autonomia-erkidegoaren edo administrazio zentralaren mendeko edo haiei lotutako erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta irabazi-asmorik gabeko elkarteak edo erakundeak, aldi baterako laneko enpresak, bai eta horien mendeko edo haiei lotutako beste edozein erakunde pribatu eta jabe-erkidegoak ere.

5. Quedan excluidas de la condición de entidad beneficiaria, los organismos autónomos y las sociedades públicas y asociaciones o entidades sin ánimo de lucro dependientes o vinculadas a cualquier ámbito de la administración local, foral, autonómica o central, las empresas de trabajo temporal, así como cualesquiera otras entidades privadas dependientes o vinculadas a las anteriores y las comunidades de propietarios o propietarias.

4. oinarria. *Dirulaguntza jaso dezakeen egitatea*.

Base 4. *Hecho subvencionable*.

1. Diruz lagundu ahal izango dira 2024ko uztailaren 31tik 2025eko uztailaren 30era bitartean Bizkaian erroldatutako eta langabezian dauden pertsonekin egindako lan-kontratu mugagabeak, betiere honako kolektibo hauetakoren batekoak badira:

1) 50 urtetik beherako pertsonak.
2) Iraupen luzeko langabeak.
3) Desgaitasuna duten pertsonak.
4) Bazterkeriako arrisku-egoeran dauden pertsonak.

Kontratatutako pertsonak Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldatuta egon behar dira, gutxienez kontratu mugagabea hasten denetik, eta erroldatuta jarraitu behar dute indarraldi osoan.

1. Serán subvencionables los contratos de trabajo indefinidos formalizados entre el 31 de julio de 2024 y el 30 de julio de 2025 con personas empadronadas en Bizkaia que se encuentren en situación de desempleo, siempre que pertenezcan a alguno de los siguientes colectivos:

1º) Personas menores de 50 años.
2º) Personas desempleadas de larga duración.
3º) Personas con discapacidad.
4º) Personas en riesgo de exclusión.

Las personas contratadas habrán de estar empadronadas en el Territorio Histórico de Bizkaia, al menos desde la fecha de inicio del contrato indefinido y continuar empadronadas durante toda su vigencia.

2. Ez da diruz lagunduko aldi baterako kontratua mugagabe bihurtzea.

2. No será subvencionable la conversión de un contrato temporal en indefinido.

3. Ez dira diruz lagunduko enpresaburuarekin edo enpresa-kontrola dutenekin edo enpresetako —edozein forma juridiko dutela ere—zuzendaritza-karguak dituztenekin edo administrazio-

3. No será subvencionable la contratación de personas que tengan relación de parentesco por consanguinidad o afinidad hasta el segundo grado inclusive con la persona empresaria o con quienes

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8CA9-S14T-P57J-IY1Z
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

organoetako kide direnekin bigarren mailara arteko odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko harremana duten pertsonekin egiten diren kontratazioak.

tengan el control empresarial, ostenten cargos de dirección o sean miembros de los órganos de administración de las empresas, independientemente de la forma jurídica que ostenten.

4. Kontratuen baldintzak:

4. Requisitos de los contratos:

a) Kontratu mugagabeek lanaldi osokoak izan beharko dute, kontratua hasten den egunetik eta indarraldi osoan zehar.

a) Los contratos indefinidos deberán ser a jornada completa desde la fecha de inicio del contrato y durante toda su vigencia.

Hala ere, desgaitasuna duten pertsonekin formalizatzen diren kontratuak lanaldi partzialekoak izan daitezke, baldin eta lanaldi hori ezarritako ohiko lanaldiaren % 50 bada gutxienez.

No obstante, los contratos que se formalicen con personas con discapacidad podrán ser a jornada parcial, siempre que ésta represente un mínimo del 50 % de la jornada habitual establecida.

b) Kontratu mugagabea diruz laguntzeko modukoa izan dadin, dirulaguntza eskatzeko arrazoi den langileak aldez aurretik kontratu mugagabea izan badu amaitu den enpresa berean, gutxienez 5 urte igaro behar izan dira bi kontratuen artean.

b) Para que el contrato indefinido sea subvencionable, si la persona trabajadora, por la que se solicita subvención ha tenido un contrato indefinido previo en la misma empresa que ha finalizado, ha debido de transcurrir un periodo mínimo de 5 años entre ambos contratos.

c) Kontratu mugagabea diruz laguntzeko modukoa izan dadin, dirulaguntza eskatzeko arrazoi den langileak aldez aurretik aldi baterako kontratua izan badu amaitu den enpresa berean, gutxienez 2 hilabeteko epea igaro behar izan da bi kontratuen artean.

c) Para que el contrato indefinido sea subvencionable, si la persona trabajadora por la que se solicita subvención ha tenido un contrato temporal previo en la misma empresa que ha finalizado, ha debido de transcurrir un periodo mínimo de 2 meses entre ambos contratos.

d) Kontratatutako langileek langabezia-egoera egiaztatu behar dute kontratua hasi baino lehen eta Gizarte Segurantzan alta eman arte, honela:

d) Las personas trabajadoras contratadas han de acreditar la situación de desempleo inmediatamente antes de la fecha de inicio del contrato y hasta la fecha de alta del mismo en la Seguridad Social, de la siguiente forma:

1) Lan-bizitzaren txostenean, kontratua egin aurretik eta Gizarte Segurantzan kontratuari alta eman arte, langabezian edo enplegurik gabe egon beharko dute.

1.º En el informe de vida laboral, con carácter previo a la celebración del contrato y hasta la fecha de alta del mismo en la Seguridad Social, deberán figurar en situación de desempleo o sin empleo.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8CA9-S14T-P57J-IY1Z
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

2) Lanbiden, Euskal Enplegu Zerbitzuan, langabe gisa inskribatuta egon beharko dute kontratua sinatu aurretik eta Gizarte Segurantzan alta ematen zaion datara arte.

2.º Deberán estar inscritas en Lanbide, Servicio Vasco de Empleo, como desempleadas con carácter previo a la celebración del contrato y hasta la fecha de alta del mismo en la Seguridad Social.

e) Kontratatutako pertsonek Bizkaiko Lurralde Historikoan kokatutako lantokietan egin beharko dituzte beren zerbitzuak. Baldintza horri eutsi egin beharko diote kontratuaren indarraldi osoan.

e) Las personas contratadas deberán prestar sus servicios en centros de trabajo radicados en el Territorio Histórico de Bizkaia. Este requisito deberá cumplirse durante toda la vigencia del contrato.

5. Derrigorrezkoa izango da bai kontratuaren formalizazioa, bai kontratatutako pertsonari Gizarte Segurantzan dagokion erregimenenean alta ematea eskabidea aurkeztu aurrekoak izatea.

5. Será obligatorio que la formalización del contrato y el alta de la persona contratada en el régimen correspondiente de la Seguridad Social sean previos a la presentación de la solicitud.

6. Nolanahi ere, egiten diren kontratuek bat etorri behar dute kontratua formalizatzean indarrean dagoen lan-araudiarekin.

6. En todo caso, los contratos que se realicen deberán ajustarse a la normativa laboral vigente existente en el momento de la formalización del contrato.

7. Kontratuak ez dira diruz laguntzekoak izango, urteko soldata gordina 20.000 euro baino gutxiago bada.

7. No serán subvencionables aquellos contratos cuyo salario bruto anual sea inferior a 20.000 euros.

Horretarako, urteko soldata gordinaren kalkulua kontratu mugagabearen lehenengo nominaren arabera egingo da. Nomina hori eskabidearekin batera aurkeztu da.

A estos efectos, el cálculo del salario bruto anual se realizará teniendo en cuenta la primera nómina del contrato indefinido, aportada junto con la solicitud.

8. Kontratua egiten den datan, oinarri honetan jasotako baldintza guztiak bete beharko dira.

8. A la fecha de realización del contrato han de cumplirse todos los requisitos previstos en esta base.

5. oinarria. *Dirulaguntzen zenbatekoa.*

Base 5. *Cuantía de las ayudas.*

Dirulaguntzaren zenbatekoa honako hau izango da:

La cuantía de la subvención será la siguiente:

1. Kontratu mugagabe bat egiteagatik 3.000 euroko dirulaguntza emango da; kontratutakoa emakumea bada, berriz, 3.600 eurokoa.

1. Por la realización de un contrato indefinido será de 3.000 euros y de 3.600 si la persona contratada es una mujer.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8CA9-S14T-P57J-IY1Z
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

2. Oinarri honen 4. paragrafoan jasotako jarduketaren bat egiteko kontratu mugagabea egiteagatik 3.750 eurokoa izango da, betiere kontratuaren okupazioa jarduketa horiekin lotuta badago.

2. Por la realización de un contrato indefinido para la realización de alguna de las actuaciones contempladas en el apartado 4. de esta base será de 3.750 euros, siempre que la ocupación del contrato esté relacionada con dichas actuaciones.

3. Langileak 2024an edo 2025ean Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren edo Barakaldoko DEMA Enpresa Garapenaren enplegu-programaren batean parte hartu badu, dirulaguntzaren zenbatekoa 4.000 eurokoa izango da.

3. En el caso de que la persona trabajadora haya participado en algún programa del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, o de DEMA Enpresa Garapena de Barakaldo, durante los años 2024 o 2025, la cuantía de la subvención será de 4.000 euros.

4. 3.750 euroko dirulaguntza jaso dezakete jarduera hauetakoren bat egiteko formalizatutako kontratu mugagabeek:

4. Serán subvencionables con 3.750 euros los contratos indefinidos formalizados para la realización de alguna de las siguientes actuaciones:

a) Ekonomia berde baterako trantsizio ekologikoaren esparruan:

a) En el ámbito de la transición ecológica hacia una economía verde:

1. Energia aurrezten edo energia berriztagarriak erabiltzen lagunduko duten neurriak ezartzea.

1º Implantación de medidas que contribuyan al ahorro de energía o a la utilización de energías renovables.

2. Produktu eta zerbitzuetarako tokiko merkatuak bultzatzea.

2º Impulso de mercados locales para productos y servicios.

3. Trantsizio ekologikoari eta jarduera horren ingurumen-inpaktua murrizteari lagunduko dioten ondasunen ekoizpena edo zerbitzuak ematea bultzatzea.

3º Impulso de producción de bienes o prestación de servicios que contribuyan a la transición ecológica y a la reducción del impacto ambiental de dicha actividad.

4. Ekonomia zirkularraren eta hondakinen murrizketaren arloko ekimenak.

4º Iniciativas en el ámbito de la economía circular y la reducción de residuos.

b) Eraldaketa digitalaren esparruan:

b) En el ámbito de la transformación digital:

1) Langileen gaitasun digitalak garatzea prestakuntza-ekintzen bidez.

1.º Desarrollo de competencias digitales en las personas trabajadoras a través de acciones formativas.

2) Digitalizazio-prozesuak ezartzea.

2.º Incorporación de procesos de digitalización.

3) Azpiegitura teknologikoak hobetzea edo ezartzea.

3.º Mejora o implantación de infraestructuras tecnológicas.

4) Zibersegurtasunaren eta datuen babesaren arloko ekintzak bultzatzea.

4.º Impulso de acciones en materia de ciberseguridad y protección de datos.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8CA9-S14T-P57J-IY1Z
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

5) Eduki digitalak, web-orriak eta app-ak sortzea eta hobetzea.

5.º Creación y mejora de contenidos digitales, páginas web y Apps.

6) Mundu digitalera egokitutako ordutegiak eta telelana malgutzeko ereduak ezartzea, produktibitatea hobetzeko, bateragarritasunari laguntzeko eta ekonomia iraunkorrari laguntzeko, garraioari lotutako emisioak murriztuz.

6.º Implantación de modelos de flexibilización horaria y teletrabajo adaptados al mundo digital para la mejora de la productividad, ayuda a la conciliación y apoyo a una economía sostenible mediante la reducción de las emisiones ligadas al transporte.

7) E-commerce eta marketin digitaleko on-line plataformak sortzea.

7.º Creación de plataformas on-line de e-commerce y marketing digital.

5. Arlo honetan, erakunde onuradun bakoitzari gehienez ere 10 kontratazio lagunduko zaizkio diruz, eta kontratazio guztien gehieneko zenbatekoa ez da 30.000 eurotik gorakoa izango.

5. En esta área se subvencionará, a cada entidad beneficiaria, un máximo de 10 contrataciones y la cuantía máxima de subvención por el conjunto de todas ellas no podrá ser superior a 30.000 euros.

6. oinarria. *Dirulaguntza ordaintzea eta justifikatzea*.

Base 6. *Pago y justificación de la subvención.*

1. Honela ordainduko dira onarturiko dirulaguntzak:

1. La ayuda otorgada se pagará del siguiente modo:

Onartutako kopuruaren % 85 arte, laguntza ematen den unean.

Hasta el 85% de la cantidad otorgada en el momento de concesión de la ayuda.

Gainerako ehunekoa oinarri honetako 2. atalean adierazitako dirulaguntza justifikatzeko beharrezko den dokumentazioa aurkeztu ondoren ordainduko da.

El % restante se abonará una vez que se haya presentado la documentación necesaria para justificar la subvención indicada en el apartado 2 de esta base.

2. Justifikazioa telematikoki egingo da, gehienez ere bi (2) hilabeteko epean, diruz lagundutako kontratuaren lehen 12 hilabeteak amaitzen direnetik eta, edozein kasutan, 2026ko irailaren 30a baino lehen.

2. La justificación se realizará vía telemática en el plazo máximo de dos (2) meses contados desde que finalicen los 12 primeros meses completos del contrato subvencionado y, en cualquier caso, con anterioridad al 30 de septiembre de 2026.

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez, Erakunde onuradunak kontratatutako langileari dagokion Langilearen Izen Zerrenda (LIZ) aurkeztu beharko du, "Likidazio bateko Langilearen Deklarazioa" izeneko dokumentuaren bidez, kontratua hasi zenetik lehenengo

La entidad beneficiaria deberá presentar, a través de la Oficina Virtual de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, La "Relación Nominal de Trabajador" (RNT) referido a la persona trabajadora contratada, mediante el documento denominado "Declaración de Trabajador en una Liquidación", del mes primero al duodécimo desde el inicio del

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8CA9-S14T-P57J-IY1Z
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

hilabetetik hamabigarrenera, hots, 12 hilabete oso kontratu mugagabea hasi zenetik.

Dokumentu hori LZN/AZ lortzeko zerbitzuaren bidez eskura daiteke, Gizarte Segurantzaren web-orrian: www.seg-social.es.

Era berean, justifikatzeko beharrezkoa den beste edozein dokumentu eskatu ahal izango da.

Justifikazioari buruzko agiriak zehaztutako epearen barruan aurkezten ez badira, 26. oinarrian eta hurrengoetan aurrez ikusitako ez-betetze prozedura hasiko da, behin errekerimendua eginda.

3. Betebeharra aitortu eta dirulaguntza ordaindu aurretik, erakunde onuradunek zerga-betebeharrak nahiz zuzenbide publikoko gainerakoak eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoak bete dituztela egiaztatuko da.

Egindako egiaztapenaren bidez ikusten bada erakunde onuradunak ez dituela egunean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, dekretu honen 26. oinarrian eta hurrengoetan ez-betetzeetarako ezarri den prozedura hasiko da.

7. oinarria. *Baja*.

1. Laguntzen erakunde onuradunek langilearen egonkortasunari eutsi beharko diote, gutxienez diruz lagundutako kontratuaren lehenengo 12 hilabeteetan.

Kontratuaren lehenengo 12 hilabeteetan kontratua azkendu edo langilea Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpoko beste lantoki batera bidaltzen badute, dirulaguntza osoa itzuli beharko da.

contrato. Han de ser de 12 meses completos desde el inicio del contrato indefinido.

Este documento se puede obtener a través del “Servicio de obtención de RNT por NAF” en la página web de la Seguridad Social : www.seg-social.es.

Asimismo, podrá requerirse cualquier otro documento preciso para la justificación.

Si la documentación relativa a la justificación no se presentara en dicho plazo, se iniciará, previo requerimiento, el procedimiento de incumplimiento previsto en la base 26 y siguientes.

3. Previo al reconocimiento de la obligación y al pago de la subvención, se comprobará que las entidades beneficiarias se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y demás de derecho público y, en su caso, frente a la Seguridad Social.

Si tras la comprobación efectuada resulta que la entidad beneficiaria no se halla al corriente de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social se tramitará el procedimiento de incumplimiento previsto en la base 26 y siguientes de este decreto.

Base 7. *Baja*.

1. Las entidades beneficiarias de las ayudas quedan obligadas a mantener la estabilidad de la persona trabajadora, durante, al menos, los 12 primeros meses del contrato subvencionado.

2. Si durante los 12 primeros meses del contrato se produjera la extinción del contrato o la persona fuera trasladada a otro centro radicado fuera del Territorio Histórico de Bizkaia, procederá el reintegro total de la subvención concedida.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8CA9-S14T-P57J-IY1Z
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Ez da hala jokatuko, baldin eta dirulaguntza eman ondoren kontratua honako arrazoi hauengatik azkentzen bada:

Lana borondatez uztea.
Erretiroa.
Bidezkotzat jotako kaleratzea.
Kontratatutako pertsonaren heriotza edo baliaezintasuna.

Kasu horietan, enpresak horren berri eman beharko du Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko bulego birtualaren bidez, eta inguruabar hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du, kontratua amaitu eta gehienez ere hamar (10) eguneko epean, dirulaguntzaren zenbatekoa kontratatutako pertsonak lan egindako aldiaren zati proportzionalera egokitu ahal izateko. Beraz, laguntza itzuli eta/edo gutxitu beharko da, 12 hilabeteko gutxieneko aldiari kontratuak iraun duen hilabeteak kenduta ateratzen den proportzioan.

Kasu horietan, enpresak beste pertsona bat edo batzuk kontratatu nahi baditu, beste dirulaguntza eskaera bat aurkeztu beharko du nahitaez, foru dekretu honetan ezarritako baldintzetan, betiere beronetan ezarritako epeen barruan badago.

3. Zenbait kasutan, ez da egongo dirulaguntza itzuli beharrik, Langileen Estatutuari buruzko Legearen Testu Bategina onesten duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera (aurrerantzean, 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua); hauetan:

a) 40. artikuluan adierazitako arrazoien ondoriozko lekualdatzeak, betiere lan-kontratua azkentzen ez bada.

No se procederá de este modo si, una vez concedida la subvención, el contrato se extingue por alguno de los siguientes motivos:

Cese voluntario.

Jubilación.

Despido declarado procedente.

Muerte o invalidez de la persona contratada.

En estos casos la empresa deberá comunicar dicha circunstancia, por la Oficina Virtual de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, y aportar la documentación que lo acredite, en el plazo máximo de diez (10) días desde la extinción del contrato a efectos de ajustar la subvención final a la parte proporcional del periodo trabajado por la persona contratada. De forma que procederá el reintegro y/o minoración de la ayuda, en la proporción que resulte de descontar al período mínimo exigido de 12 meses, los meses durante los cuales se mantuvo el contrato.

En estos casos, si la empresa quisiera contratar a otra u otras personas, deberá presentar obligatoriamente una nueva solicitud de subvención en las condiciones establecidas en este decreto foral, siempre que esté dentro de los plazos previstos en el mismo.

3. No se exigirá el reintegro en los siguientes casos previstos en el Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores (en adelante Real Decreto Legislativo 2/2015):

a) Traslados o desplazamientos motivados por las causas contempladas en el artículo 40, siempre que no se produzca la extinción del contrato de trabajo.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8CA9-S14T-P57J-IY1Z
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

b) Kaleratze kolektiboa, 51. artikuluan xedatutakoaren arabera.

b) Despido colectivo según lo previsto en el artículo 51.

4. Kontratatutako pertsonak amatasun- edo aitatasun-lizentzia hartzen badu, pertsona horren ordez beste bat kontratatu ahal izango da, lizentziarekin dagoen aldian zehar. Ordezkoak foru-dekretu honen 4. oinarriko betekizunak bete beharko ditu.

4. Si la persona contratada se acogiera a una licencia por maternidad o paternidad se aceptará su sustitución por otra persona contratada durante el tiempo que permanezca en situación de licencia. La persona sustituta deberá de cumplir los requisitos de la base 4 de este decreto foral.

5. Laguntza jaso duen erakunde onuradunak bere jarduerari utziko balio, eman zaion dirulaguntza kobratzeko eskubidea galduko du momentu horretatik aurrera.

5. Si la entidad beneficiaria de la ayuda cesara su actividad, perderá, a partir de ese momento, el derecho al cobro de la subvención que se le hubiera otorgado.

6. Dirulaguntza eman aurretik kontratuari baja ematen bazaio kontratua hasi zenetik 12 hilabete igaro gabe, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko da.

6. La baja del contrato producida con anterioridad al otorgamiento de la subvención, sin que hayan transcurrido 12 meses desde el inicio del contrato, producirá la pérdida del derecho a la subvención.

## II. KAPITULUA

## 2. arloa - Esperientzia profesionala

8. oinarria. *Erakunde onuradunak*

1. Honako hauek izan daitezke dirulaguntzen onuradun: Bizkaiko enpresak (haien forma juridikoa gorabehera), enpresaburu indibidual eta profesionalak, ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak eta Bizkaiko Lurralde Historikoko elkarte, fundazio eta irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuk, baldin eta lantokia, egoitza soziala eta zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan badituzte.

2. Erakunde onuradunek indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean eduki behar dituzte.

3. Onuradunak izateko, entitateek ezin dute egon 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan zein 4/2018

## CAPÍTULO II

## Área 2 - Experiencia profesional

Base 8. *Entidades beneficiarias*

1. Podrán ser beneficiarias de las subvenciones las empresas de Bizkaia, cualquiera que sea su forma jurídica, los empresarios y empresarias individuales y profesionales, las comunidades de bienes y sociedades civiles, así como las asociaciones, fundaciones y otras entidades sin ánimo de lucro, siempre que tengan su domicilio social y fiscal, así como su centro de trabajo en el Territorio Histórico de Bizkaia.

2. Las entidades beneficiarias deberán hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias o frente a la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes.

3. Para ser beneficiarias, las entidades no pueden verse afectadas por ninguna de las prohibiciones

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8CA9-S14T-P57J-IY1Z
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Foru Arauaren 42. artikuluan jasotako inongo debekuren mendean.

4. Pertsona fisiko eta juridiko hauek ezin izango dute, inola ere, inolako laguntza edo dirulaguntzarik jaso:

a) Berdintasunerako eskubidea eta sexuan oinarritutako bereizkeriarik ez izateko eskubidea urratzeagatik zehapen irmoa dutenak administrazio-, lan- edo zigor-bidean.

b) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioaren aurkakoak diren xede edo helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituztenak.

c) 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2. artikuluan edo 3/2007 Lege Organikoan ezarritako betebeharrak betetzen ez dituztenak.

Halaber, ezin izango dira diruz lagundu sexuagatiko bazterkeria eragiten duten jarduerak edo ekintzak.

5. Erakunde onuradunaren izaeratik kanpo geratzen dira toki-administrazioaren, foru-administrazioaren, autonomia-erkidegoaren edo administrazio zentralaren mendeko edo hari lotutako erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta irabazi-asmorik gabeko elkarteak edo erakundeak, aldi baterako laneko enpresak, bai eta horien mendeko edo haiei lotutako beste edozein erakunde pribatu eta jabe-erkidegoak ere.

9. oinarria. *Dirulaguntza jaso dezakeen egitatea.*

1. Diruz lagundu ahal izango dira honako kontratuak:

del artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, así como del artículo 42 de la Norma Foral 4/2018.

4. En ningún caso podrán concurrir ni resultar beneficiarias de ningún tipo de ayudas o subvenciones las personas físicas y jurídicas:

a) Que hayan sido sancionadas en firme en vía administrativa, laboral o penal por vulneración del derecho a la igualdad y a la no discriminación por razón de sexo.

b) Cuyos fines u objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización o estatutos sean contrarios al principio de igualdad de mujeres y hombres.

c) Que incumplan las obligaciones establecidas en el artículo 23.2. del Decreto Legislativo 1/2023, o en la Ley Orgánica 3/2007.

Asimismo, no se podrán subvencionar las actividades o acciones que discriminan por razón de sexo.

5. Quedan excluidas de la condición de entidad beneficiaria, los organismos autónomos y las sociedades públicas y asociaciones o entidades sin ánimo de lucro dependientes o vinculadas a cualquier ámbito de la administración local, foral, autonómica o central, las empresas de trabajo temporal, así como cualesquiera otras entidades privadas dependientes o vinculadas a las anteriores y las comunidades de propietarios o propietarias.

Base 9. *Hecho subvencionable.*

1. Serán subvencionables los siguientes contratos:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8CA9-S14T-P57J-IY1Z
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

a) 2025. urteko urtarrilaren 1etik irailaren 26ra bitartean langabetuekin edo enplegua hobetzen ari direnekin formalizatutako kontratu mugagabeak, baldin eta Laborlan V (2024) eta Laborlan VI (2025) prestakuntza-programa mistoetan edo Gazte on – Eraikuntzaren sektoreko prestakuntza teknikoa programan parte hartu badute.

a) Contratos indefinidos formalizados en el año 2025, entre el 1 de enero y el 26 de septiembre, con personas desempleadas o en mejora de empleo que hayan participado en Programas mixtos de empleo formación, Laborlan V (2024) y VI (2025) o en el Programa Gazte on - Formación técnica en el sector de la construcción.

b) 2025. urteko urtarrilaren 1etik irailaren 26ra bitartean prestakuntza bidezko sustraitze-programan parte hartu duten langabeekin formalizatutako kontratu mugagabeak.

b) Contratos indefinidos formalizados en el año 2025, entre el 1 de enero y el 26 de septiembre, con personas desempleadas que hayan participado en el Programa de Arraigo por formación.

c) Salbuespen moduan, 2024ko urriaren 12tik abenduaren 31ra bitartean bi programa hauetakoren batean parte hartu duten pertsonekin egindako kontratuak:

1) Laborlan V (2024)
2) Prestakuntza bidezko sustraitzea

c) Excepcionalmente los contratos formalizados entre el 12 de octubre y el 31 de diciembre de 2024 con personas que hayan participado en alguno de estos dos programas:

1.º Laborlan V (2024)
2.º Arraigo por formación

Abenduaren 28ko 216/2023 Foru Dekretuaren I. tituluko 2. atalean ezarritako baldintzen arabera emango dira dirulaguntzak.

se subvencionarán con arreglo a las condiciones establecidas en la Sección 2º del Título I del Decreto Foral 216/2023, de 28 de diciembre.

2. Kontratuen baldintzak:

2. Requisitos de los contratos:

a) 2025ean Laborlan 2024 eta 2025 programetan edo Gazte on - Eraikuntzaren sektoreko prestakuntza teknikoa programan parte hartu duten pertsonekin formalizatutako kontratu mugagabeak diruz laguntzeko modukoak izango dira, betiere kontratatutako pertsonak langabezian badaude edo enplegua hobetzen ari badira.

a) Los contratos indefinidos formalizados en el año 2025 con personas que hayan participado en los programas Laborlan 2024 y 2025 o en el Programa Gazte on - Formación técnica en el sector de la construcción, serán subvencionables siempre que las personas contratadas se encuentren en situación de desempleo o mejora de empleo.

Kontratatutako langileek kontratua hasi baino lehentxeago eta Gizarte Segurantzan alta eman arte egiaztatu behar dute langabezia-egoera edo enplegu-hobekuntza. Baldintza horiek honela egiaztatuko dituzte:

Las personas trabajadoras contratadas han de acreditar la situación de desempleo, o mejora de empleo, inmediatamente antes de la fecha de inicio del contrato, y hasta la fecha de alta del mismo en la Seguridad Social, de la siguiente forma:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8CA9-S14T-P57J-IY1Z
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

1. Lan-bizitzari buruzko txostenean, kontratua egin aurretik eta Gizarte Segurantzan alta eman arte, langabezian, lanik gabe edo enplegua hobetzeko egoeran egon beharko dira.

1.º En el informe de vida laboral, con carácter previo a la celebración del contrato y hasta la fecha de alta del mismo en la Seguridad Social, deberán figurar en situación de desempleo, sin empleo o en mejora de empleo.

2. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa, langabezian edo enplegua hobetzeko egoeran inskribatuta egon beharko dute kontratua sinatu aurretik eta kontratu horren alta Gizarte Segurantzan eman arte.

2.º Deberán estar inscritas en Lanbide, Servicio Vasco de Empleo, con carácter previo a la celebración del contrato y hasta la fecha de alta del mismo en la Seguridad Social, como demandante de empleo, en desempleo o mejora de empleo.

Enplegu-hobekuntzatzat joko da hitzarmenean ezarritako lanaldiaren % 40 gainditzen ez duen lan-kontratua, eta kontratatutako pertsona Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta egotea eskatuko da.

Se considera mejora de empleo, aquel contrato de trabajo que no supere el 40% de la jornada laboral establecida en convenio, siendo requisito que la persona contratada figure inscrita como demandante de empleo en Lanbide, Servicio Vasco de Empleo.

b) Prestakuntza bidezko sustraitze-programan parte hartu duten pertsonekin 2025ean formalizatutako kontratu mugagabeak diruz lagundu ahal izango dira, baldin eta kontratatutako pertsonak langabezian badaude a) apartatuko 1. eta 2. paragrafoetan adierazitakoaren arabera.

b) Los contratos indefinidos formalizados en el año 2025 con personas que hayan participado en el Programa de Arraigo por Formación serán subvencionables siempre que las personas contratadas se encuentren en situación de desempleo conforme a lo señalado en los párrafos 1.º y 2.º del punto a).

c) Ez da diruz lagunduko enpresaburuarekin edo enpresa-kontrola dutenekin edo enpresetako—edozein forma juridiko dutela ere—zuzendaritza-karguak dituztenekin edo administrazio-organoetako kide direnekin bigarren mailara arteko odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko harremana duten pertsonekin egiten diren kontratazioak.

c) No será subvencionable la contratación de personas que tengan relación de parentesco por consanguinidad o afinidad hasta el segundo grado inclusive con la persona empresaria o con quienes tengan el control empresarial, ostenten cargos de dirección o sean miembros de los órganos de administración de las empresas, independientemente de la forma jurídica que ostenten.

d) Erakunde eskatzaileak kontratua egin aurretik langileak ez zuen kontratatuta egon behar.

d) La persona trabajadora no debe haber estado contratada con anterioridad a la fecha de celebración del contrato por la entidad solicitante.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8CA9-S14T-P57J-IY1Z
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

e) Kontratuek lanaldi osokoak edo lanaldi partzialekoak izan beharko dute; partzialekoak izanez gero, ezarritako ohiko lanaldiaren gutxienez % 80koak izango dira, kontratua hasten den egunetik eta indarraldi osoan.

e) Los contratos deberán ser a jornada completa o a jornada parcial, siempre que esta última represente un mínimo del 80% de la jornada habitual establecida, desde la fecha de inicio del contrato y durante toda su vigencia.

f) Kontratua pertsonak Laborlan 2024, Laborlan 2025, Gazte on - Eraikuntzaren sektoreko prestakuntza teknikoa edo prestakuntza bidezko sustraitze-programaren barruan parte hartu duen prestakuntza-espezialitatearekin lotutako lanbide batean egin beharko da.

f) El contrato deberá realizarse en una ocupación relacionada con la especialidad formativa en la que la persona haya participado dentro del programa Laborlan 2024, Laborlan 2025, Gazte on- Formación técnica en el sector de la construcción o Arraigo por formación.

g) Kontratatutako pertsonek Bizkaiko Lurralde Historikoan kokatutako lantokietan egin beharko dituzte beren zerbitzuak. Eta baldintza horri eutsi beharko diote kontratuaren indarraldi osoan.

g) Las personas contratadas deberán prestar sus servicios en centros de trabajo radicados en el Territorio Histórico de Bizkaia. Este requisito deberá cumplirse durante toda la vigencia del contrato.

h) Kontratatutako pertsonek Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldatuta egon behar dute, kontratua hasten den egunetik eta indarrean dagoen bitartean gutxienez.

h) Las personas contratadas han de estar empadronadas en el Territorio Histórico de Bizkaia, al menos desde la fecha de inicio del contrato y durante toda su vigencia.

3. Eskabidea aurkeztu aurretik egin behar dira kontratuaren formalizazioa eta kontratatutako pertsonari Gizarte Segurantzan dagokion erregimenean alta ematea.

3. Será obligatorio que la formalización del contrato y el alta de la persona contratada en el régimen correspondiente de la Seguridad Social sean previos a la presentación de la solicitud.

4. Nolanahi ere, egiten diren kontratuek bat etorri behar dute kontratua formalizatzean indarrean dagoen lan-araudiarekin.

4. En todo caso, los contratos que se realicen deberán ajustarse a la normativa laboral vigente existente en el momento de la formalización del contrato.

5. Kontratua egiten den egunean, oinarri honetan ezarritako baldintza guztiak bete behar dira.

5. A la fecha de realización del contrato han de cumplirse todos los requisitos previstos en esta base.

6. Laguntza jaso duen erakunde onuradunak bere jarduerari utziko balio, eman zaion dirulaguntza kobratzeko eskubidea galduko du momentu horretatik aurrera.

6. Si la entidad beneficiaria de la ayuda cesara su actividad, perderá, a partir de ese momento, el derecho al cobro de la subvención que se le hubiera otorgado.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8CA9-S14T-P57J-IY1Z
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

7. Eskaera egin ondoren, dirulaguntza jaso duen kontratuari baja ematen bazaio, kontratua altan egon den denborari dagokion dirulaguntzaren zati proportzionalaren zenbatekoa egokituko zaio erakunde eskatzaileari.

7. Si se produjera la baja del contrato por el que se solicita la subvención tras la solicitud, le corresponderá a la entidad solicitante un importe de subvención equivalente al tiempo en que hubiere estado de alta el contrato.

10. oinarria. *Dirulaguntzen zenbatekoa*.

Base 10. *Cuantía de las ayudas*.

1. Dirulaguntzaren zenbatekoa, guztira eta gehienez, honako hau izango da kontratu bakoitzeko:

1. La cuantía de la subvención será una cantidad total y máxima por contrato realizado, según el siguiente desglose:

a) 5.000,00 euro, urteko soldata gordina indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldataren eta 21.000,00 euroren artean badago.

a) 5.000,00 euros si el salario bruto anual se sitúa entre el salario mínimo interprofesional vigente y 21.000,00 euros.

b) 7.000,00 euro, urteko soldata gordina 21.000,01 eurotik 27.000,00 eurora bitartekoa bada.

b) 7.000,00 euros si el salario bruto anual se sitúa entre 21.000,01 euros y 27.000,00 euros.

c) 9.000,00 euro, urteko soldata gordina 27.000,00 eurotik gorakoa bada.

c) 9.000,00 euros si el salario bruto anual es mayor de 27.000,00 euros.

Horretarako, urteko soldata gordinaren kalkulua diruz lagundutako kontratuaren lehenengo nominaren arabera egingo da. Nomina hori eskabidearekin batera aurkeztuko da.

A estos efectos, el cálculo del salario bruto anual se realizará teniendo en cuenta la primera nómina del contrato subvencionado, aportada junto con la solicitud.

2. Arlo honetan, erakunde onuradun bakoitzari gehienez 7 kontratazio lagunduko zaizkio diruz, eta kontratazio guztiengatik gehienez ere 60.000 euroko dirulaguntza emango da.

2. En esta área se subvencionará, a cada entidad beneficiaria, un máximo de 7 contrataciones y la cuantía máxima de subvención por el conjunto de todas ellas no podrá ser superior a 60.000 euros.

11. oinarria. *Dirulaguntza ordaintzea eta justifikatzea*.

Base 11. *Pago y justificación de la subvención*.

1. Honela ordainduko dira onarturiko dirulaguntzak:

1. La ayuda otorgada se pagará del siguiente modo:

Onartutako kopuruaren % 85 arte, laguntza ematen den unean.

Hasta el 85% de la cantidad otorgada en el momento de concesión de la ayuda.

Gainerako ehunekoa oinarri honetako 3. apartatuan adierazitako dirulaguntza

El % restante se abonará una vez que se haya presentado la documentación necesaria para

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8CA9-S14T-P57J-IY1Z
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

justifikatzeko beharrezko den dokumentazioa aurkeztu ondoren ordainduko da.

2. Justifikazioa telematikoki egingo da, gehienez ere, epe hauetan:

a) 9.1.a) oinarriko kontratuak justifikatzeko, gehienez ere bi (2) hilabeteko epean egingo da, diruz lagundutako kontratuaren lehen 6 hilabete osoak amaitzen direnetik zenbatzen hasita, eta, edonola ere, 2026ko maiatzaren 31 baino lehen egin beharko da.

b) 9.1.b) oinarriko kontratuak justifikatzeko, gehienez ere bi (2) hilabeteko epea izango da, diruz lagundutako kontratuaren lehen 12 hilabete osoak amaitzen direnetik zenbatzen hasita, eta, edonola ere, 2026ko azaroaren 30a baino lehen egin beharko da.

c) Laborlan V (2024) programari dagozkion 9.1.c) oinarriko kontratuen justifikazioa gehienez ere bi (2) hilabeteko epean egingo da, diruz lagundutako kontratuaren lehen 3 hilabete osoak amaitzen direnetik zenbatzen hasita, eta, edonola ere, 2025eko maiatzaren 31 baino lehen egin beharko da.

d) Prestakuntza bidezko sustraitze-programari dagozkion 9.1.c) oinarriko kontratuak justifikatzeko, gehienez ere bi (2) hilabeteko epea izango da, diruz lagundutako kontratuaren lehen 12 hilabete osoak amaitzen direnetik zenbatzen hasita, eta, edonola ere, 2026ko otsailaren 28a baino lehen egin beharko da.

3. Erakunde onuradunak bulego birtualaren bidez kontratatutako langileari dagokion "Langilearen Izen Zerrenda" (LZN), aurkeztu beharko du, "Likidazio bateko Langilearen Deklarazioa" izeneko agiriaren bidez, honako hilabete hauetakoa:

justificar la subvención indicada en el apartado 3 de esta base.

2. La justificación se realizará vía telemática en los siguientes plazos máximos:

a) La justificación de los contratos de la base 9.1.a) se realizará en el plazo máximo de dos (2) meses contados desde que finalicen los 6 primeros meses completos del contrato subvencionado, y en cualquier caso, con anterioridad al 31 de mayo de 2026.

b) La justificación de los contratos de la base 9.1.b) se realizará en el plazo máximo de dos (2) meses contados desde que finalicen los 12 primeros meses completos del contrato subvencionado, y en cualquier caso, con anterioridad al 30 de noviembre de 2026.

c) La justificación de los contratos de la base 9.1.c) correspondientes al programa Laborlan V (2024) se realizará en el plazo máximo de dos (2) meses contados desde que finalicen los 3 primeros meses completos del contrato subvencionado y, en cualquier caso, con anterioridad al 31 de mayo de 2025.

d) La justificación de los contratos de la base 9.1.c) correspondientes al programa de Arraigo por formación se realizará en el plazo máximo de dos (2) meses contados desde que finalicen los 12 primeros meses completos del contrato subvencionado y, en cualquier caso, con anterioridad al 28 de febrero de 2026.

3. La entidad beneficiaria deberá presentar a través de la Oficina Virtual la "Relación Nominal de Trabajador" (RNT) referido a la persona trabajadora contratada, mediante el documento denominado "Declaración de Trabajador/a en una Liquidación", de los siguientes meses:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8CA9-S14T-P57J-IY1Z
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

a) Kontratuaren lehen 6 hilabete osoak, 9.1.a) oinarriko kontratuak badira.

b) Kontratuaren lehen 12 hilabete osoak, 9.1.b) oinarriko kontratuak badira.

c) Kontratuaren lehen 3 hilabete osoak, Laborlan V (2024) programari dagozkion 9.1.c) oinarriko kontratuak badira.

d) Kontratuaren lehen 12 hilabete osoak, prestakuntza bidezko sustraitze-programari dagozkion 9.1.c) oinarriko kontratuak badira.

Dokumentu hori LZN/AZ lortzeko zerbitzuaren bidez eskura daiteke, Gizarte Segurantzaren web-orrian: www.seg-social.es.

Justifikazioari buruzko agiriak zehaztutako epearen barruan aurkezten ez badira, 26. oinarrian eta hurrengoetan ezarritako ez-betetzeetarako prozedura hasiko da, behin errekerimendua egin eta gero.

4. Betebeharra aitortu eta dirulaguntza ordaindu aurretik, erakunde onuradunek zerga-betebeharrak nahiz zuzenbide publikoko gainerakoak eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoak bete dituztela egiaztatuko da.

Egindako egiaztapenaren bidez ikusten bada erakunde onuradunak ez dituela egunean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, 26. oinarrian eta hurrengoetan ez-betetzeetarako ezarri den prozedura hasiko da.

12. oinarria. *Baja.*

a) los 6 primeros meses completos del contrato si se trata de contratos de la base 9.1.a).

b) los 12 primeros meses completos del contrato si se trata de contratos de la base 9.1.b).

c) los 3 primeros meses completos del contrato si se trata de contratos de la base 9.1.c) correspondientes al programa Laborlan V (2024).

d) los 12 primeros meses completos del contrato si se trata de contratos de la base 9.1.c) correspondientes al programa de Arraigo por formación.

Este documento se puede obtener a través del “Servicio de obtención de RNT por NAF” en la página web de la Seguridad Social www.seg-social.es.

Si la documentación relativa a la justificación no se presentara en dicho plazo, se iniciará, previo requerimiento, el procedimiento de incumplimiento previsto en el la base 26 y siguientes.

4. Previo al reconocimiento de la obligación y al pago de la subvención, se comprobará que las entidades beneficiarias se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y demás de derecho público y, en su caso, frente a la Seguridad Social.

Si tras la comprobación efectuada resulta que la entidad beneficiaria no se halla al corriente de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social, se tramitará el procedimiento de incumplimiento previsto en el la base 26 y siguientes de este decreto.

Base 12. *Baja.*

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8CA9-S14T-P57J-IY1Z
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

1. Laguntzak jasotzen dituzten erakunde onuradunek langilearen egonkortasunari eutsi beharko diote honako hilabete hauetan:

a) 9.1.a) oinarriko kontratuetarako, diruz lagundutako kontratuaren iraupeneko lehen sei (6) hilabeteetan.

b) 9.1.b) oinarriko kontratuetarako, diruz lagundutako kontratuaren iraupeneko lehen hamabi (12) hilabeteetan.

c) Laborlan V programari (2024) dagozkion 9.1.c) oinarriko kontratuetarako, diruz lagundutako kontratuaren iraupeneko lehen hiru (3) hilabeteetan.

d) Prestakuntza bidezko sustraitze-programari dagozkion 9.1.c) oinarriko kontratuetarako, diruz lagundutako kontratuaren iraupenaren lehen hamabi (12) hilabeteetan.

Adierazi diren 3, 6 edo 12 hilabeteko epe horietan kontratua edozein arrazoirengatik azkentzen bada, laguntza itzuli eta/edo gutxitu egingo da, eskatutako aldiari kontratuak iraun duen hilabeteak kenduta ateratzen den proportzioan.

2. Honako kasu hauetan, ez da egongo dirulaguntza itzuli beharrik, 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera:

a) 40. artikuluan adierazitako arrazoien ondoriozko lekualdatzeak, betiere lan-kontratua azkentzen ez bada.

b) Kaleratze kolektiboa, 51. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3. Kontratatutako pertsonak amatasunagatiko edo aitatasunagatiko lizentzia hartzen badu, beste

1. Las entidades beneficiarias de las ayudas quedan obligadas a mantener la estabilidad de la persona trabajadora, durante los siguientes meses:

a) Para los contratos de la base 9.1.a), durante los seis (6) primeros meses de duración del contrato subvencionado.

b) Para los contratos de la base 9.1.b), durante los doce (12) primeros meses de duración del contrato subvencionado.

c) Para los contratos de la base 9.1.c), correspondientes al programa Laborlan V (2024) durante los tres (3) primeros meses de duración del contrato subvencionado.

d) Para los contratos de la base 9.1.c), correspondientes al programa de Arraigo por formación, durante los doce (12) primeros meses de duración del contrato subvencionado.

Si en dichos plazos de 3, 6 ó 12 meses se produjera la extinción del contrato por cualquier motivo, se procederá al reintegro y/o minoración de la ayuda, en la proporción que resulte de descontar al período exigido, los meses durante los cuales se mantuvo el contrato.

2. No se exigirá el reintegro en los siguientes casos previstos en el Real Decreto legislativo 2/2015:

a) Traslados o desplazamientos motivados por las causas contempladas en el artículo 40, siempre que no se produzca la extinción del contrato de trabajo.

b) Despido colectivo según lo previsto en el artículo 51.

3. Si la persona contratada se acogiera a una licencia por maternidad o paternidad se aceptará

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8CA9-S14T-P57J-IY1Z
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

pertsona batek ordeztea onartuko da, lizentzia-egoeran dagoen bitartean. Ordezkoak dekretu honen 9. oinarriko betekizunak bete beharko ditu.

su sustitución por otra persona contratada durante el tiempo que permanezca en situación de licencia. La persona sustituta deberá de cumplir los requisitos de la base 9 de este decreto.

## III. KAPITULUA

### Aurrekontu-kredituak

13. oinarria — *Aurrekontuko zuzkidura.*

1. Foru-dekretu honen arabera eman daitezkeen laguntzak eta onurak ondoren aipatuko diren aurrekontuko partiden eta zuzkiduren kontura emango dira. Partida eta zuzkidura horiek aurrekontuei buruzko indarreko araudiaren arabera aldatu ahal izango dira.

I. KAPITULUA

1. arloa. Kontratazio mugagaberako pizgarriak.

1. 1. arloko aurrekontua, guztira, 1.145.608,35 eurokoa da, honelaxe banatuta:

| Urtea | Aurrekontuko partida | Zenbatekoa (€) |
|---|---|---|
| | | |
| 2025 | 0904/G/241116/44300 2013/0048 | 828.643,76 |
| 2026 | 0904/G/241116/44300 2013/0048 | 276.514,59 |
| Guztira | Hainbat urtetarako gastua | 1.105.158,35 |
| | | |
| 2025 | 0904/G/241116/44900 2013/0048 | 9.937,50 |
| 2026 | 0904/G/241116/44900 2013/0048 | 3.312,50 |
| Guztira | Hainbat urtetarako gastua | 13.250,00 |
| | | |
| 2025 | 0904/G/241116/45100 2013/0048 | 20.637,50 |
| 2026 | 0904/G/241116/45100 2013/0048 | 6.562,50 |
| Guztira | Hainbat urtetarako gastua | 27.200,00 |

II. KAPITULUA

## CAPÍTULO III

### Créditos presupuestarios

Base 13. — *Dotación presupuestaria*

1. Las ayudas y beneficios que puedan otorgarse con arreglo a estas bases, se efectuarán con cargo a las siguientes partidas y dotaciones presupuestarias, sin perjuicio de que las mismas puedan ser modificadas de conformidad con la normativa presupuestaria vigente.

CAPÍTULO I

Área 1. Incentivos a la contratación indefinida.

El total del presupuesto del área 1 asciende a 1.145.608,35 euros, distribuidos del siguiente modo:

| Anualidad | Partida presupuestaria | Importe (€) |
|---|---|---|
| | | |
| 2025 | 0904/G/241116/44300 2013/0048 | 828.643,76 |
| 2026 | 0904/G/241116/44300 2013/0048 | 276.514,59 |
| Total | Gasto plurianual | 1.105.158,35 |
| | | |
| 2025 | 0904/G/241116/44900 2013/0048 | 9.937,50 |
| 2026 | 0904/G/241116/44900 2013/0048 | 3.312,50 |
| Total | Gasto plurianual | 13.250,00 |
| | | |
| 2025 | 0904/G/241116/45100 2013/0048 | 20.637,50 |
| 2026 | 0904/G/241116/45100 2013/0048 | 6.562,50 |
| Total | Gasto plurianual | 27.200,00 |

CAPÍTULO II

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8CA9-S14T-P57J-IY1Z
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

2. arloa. Esperientzia profesionala

1. 2. arloko aurrekontua, guztira, 950.000,00 eurokoa da, honelaxe banatuta:

| Urtea | Aurrekontuko partida | Zenbatekoa (€) |
|---|---|---|
| | | |
| 2025 | 0904/G/241116/44300 2013/0048 | 676.050,00 |
| 2026 | 0904/G/241116/44300 2013/0048 | 225.350,00 |
| Guztira | Hainbat urtetarako gastua | 901.400,00 |
| | | |
| 2025 | 0904/G/241116/44900 2013/0048 | 20.850,00 |
| 2026 | 0904/G/241116/44900 2013/0048 | 6.950,00 |
| Guztira | Hainbat urtetarako gastua | 27.800,00 |
| | | |
| 2025 | 0904/G/241116/45100 2013/0048 | 15.600,00 |
| 2026 | 0904/G/241116/45100 2013/0048 | 5.200,00 |
| Guztira | Hainbat urtetarako gastua | 20.800,00 |

2. Emango diren dirulaguntzen guztizko zenbatekoak gutxi gorabeherako gehieneko muga bat izango du, 2.095.608,35 euroko zenbatekoa. Kopuru hori aldatu ahal izango da 34/2010 Foru Dekretuaren 41. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Halaber, aurrekontuetako kredituen arteko banaketa gutxi gorabeherakoa da; beraz, aurkeztutako eskabide kopuruaren arabera eta kontuan izanik izaera askotako entitate onuradunak egon daitezkeela, foru-dekretu honetan ezarritako aurrekontuko izendapenak foru-dekretuan adierazitako arlo eta partida ezberdinen artean banatu ahal izango dira, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru-diputatuaren foru-agindu bidez, betiere ezarritako muga orokorra gainditu gabe.

Área 2. Experiencia profesional

El total del presupuesto del área 2 asciende a 950.000,00 euros, distribuidos del siguiente modo:

| Anualidad | Partida presupuestaria | Importe (€) |
|---|---|---|
| | | |
| 2025 | 0904/G/241116/44300 2013/0048 | 676.050,00 |
| 2026 | 0904/G/241116/44300 2013/0048 | 225.350,00 |
| Total | Gasto plurianual | 901.400,00 |
| | | |
| 2025 | 0904/G/241116/44900 2013/0048 | 20.850,00 |
| 2026 | 0904/G/241116/44900 2013/0048 | 6.950,00 |
| Total | Gasto plurianual | 27.800,00 |
| | | |
| 2025 | 0904/G/241116/45100 2013/0048 | 15.600,00 |
| 2026 | 0904/G/241116/45100 2013/0048 | 5.200,00 |
| Total | Gasto plurianual | 20.800,00 |

2. El importe total de las ayudas que se concedan tendrá como límite máximo estimativo la cantidad de 2.095.608,35 euros y se podrá modificar conforme a lo previsto en el artículo 41 del Decreto Foral 34/2010, en relación con los límites de las cuantías máximas.

